

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jabier Arteaga Bernaola

*Mañaria,
Bizkaia (1947)*

Aurkibidea



Biografia



Mañariko Tellerian jaio zen bost neba-arrebatatik gazteena zen familia batean. Ama bertakoa zuen eta aita Dimatik hiru urtegaz etorritakoa. Umetan herriko eskolan ibili zen Durangoko maristetara joan aurretik. Hiru urtez monagilo lanetan aritu zen abadeari laguntzen. 1979an zinegotzi lanetan hasi zen eta 16 urtez aritu ostean, beste 16 urtez, 2011ra arte alkate izan zen.

Zintak

MAN-024

- **Proiektua:** Mañariko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2011-05-17
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

Pasarteak

1. Garai batean etorkin asko Mañarira

- **Erref:** MAN-024/002
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:01:39. **Bukatu:** 00:03:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna

Laburpena:

Garai batean (1954-1970 bitartean) kanpoko jende asko etorri zen Mañarira lanera. 900 biztanletik gora izan omen zituen. Askok alde egin zuten gero, baina batzuk bertan gelditu ziren. Bere sasoian jada jende gutxi bizi omen zen baserritik bakarrik.

2. Mutikotan frontoian denbora asko; pilotak

- **Erref:** MAN-024/003
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:03:12. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Aisia » Kirola » Pilota

Laburpena:

Umetan beti olgetan. Frontoian ibiltzen ziren asko: bustita bazegoen, palaz; eta siku zegoenean, eskuz. Nonbaitetik dirua aurreztuz gero, batzuetan Bilbotik ekartzen zituzten pilotak. Pilota ona lortzen zutenean, ondo zaintzen zuten. Besterik ez zegoenean, trapuzko pilotekin. Oinetakoak.

3. Mañariko eskola; Maristetara Durangora

- **Erref:** MAN-024/005
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:07:03. **Bukatu:** 00:08:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Eskolan Mañarian ibili zen hamar urtera arte eta gero Maristetara Durangora. Mutiko kuadrilla joaten ziren, oinez. Batxilerra edo lanbide-heziketa egiteko aukera zegoen han. Mañariko eskola udaletxean zegoen, solairu batean neskak eta bestean mutilak.

4. Mutikotako olgetak: kaniketan, txapaka...

- **Erref:** MAN-024/009
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:14:27. **Bukatu:** 00:16:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Mutikotako olgetak: kaniketan, txapaka... Nola jolasten zuten. Limonada botilen tapoiak nola prestatzen zituzten. Lurrean arrastoak egiteko klariona edo teila zatia. Iltzeak lurrean sartzeko ere jolasten zuten. Neskekin gutxi ibiltzen ziren; haiei nola hitz egin ere ez zuten jakiten!</p>

5. Errekan karramarroak, arrankariak edo ezkailuak harrapatzen

- **Erref:** MAN-024/010
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:16:28. **Bukatu:** 00:18:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Udan, eguraldi onarekin, errekan ibiltzen ziren egunero karramarrotan.

Arrankariak ere harrapatzen zituzten eskuz. Karramarro batzuk harrapatutakoan, pote batera bota urarekin, egosi eta jan. Ezkailutan nola egiten zuten. Mutikotan amari eramaten zizkioten prestatzeko; koskortutakoan tabernara ere bai batzuetan. Ze ingurutan ibiltzen ziren.

6. Errekan ikasi zuten igerian

- **Erref:** MAN-024/011
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:18:43. **Bukatu:** 00:20:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, errekek eta uretako jolasak

Laburpena:

Errekan bainatu ere egiten ziren. Ura hotza egoten zen. Leku batzuetan lau metroraingo altuera zegoen eta hantxe ikasi zuten igerian. Putzuetan sugeak egon arren, lasai bainatzen ziren. Bainujantziren bat izango zuten, baina askotan biluzik. Inguruko landa baten ugazabarekin izaten zituzten gorabeherak.

7. On Agustin abadearen meza-laguntzaile

- **Erref:** MAN-024/015
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:24:54. **Bukatu:** 00:27:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Txanponak, diru-kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Otxandioko abadea zegoen Mañarian: on Agustin. "Bai, jaune" eta "beroi" esan behar. Meza-laguntzaile lanean ibili zen zazpi urtetik hamarrera bitartean. Abadeari meza ematen laguntzea zen egin beharrekoa eta horretarako latinezko errezoak ikasi behar. Egunero egoten zen meza. Asteazkenean zehar normal jantzita, baina igandetan elizako arrokekin. Zenbat diru ematen zien abadeak.

8. Aste Santuetako prozesioak Mañarian

- **Erref:** MAN-024/016
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:27:26. **Bukatu:** 00:29:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

Aste Santuetan prozesioak egoten ziren Mañarian. Santua eramatearren ordaindu egiten zuten. Nondik nora joaten ziren. Jende asko joaten zen, denak dotore. Eguen santu egunean jantziak estreinatzen ziren. Urtean zehar beste prozesio batzuk ere izaten ziren.

9. Zapata berrienak igandetan; pilotan zapatilak apurtu

- **Erref:** MAN-024/017
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 00:29:33. **Bukatu:** 00:32:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Asteazken zehar arropa zaharrak eta domeketan dotoreagoak. Uda aldean praka zuriak eramaten ziren. Gaur egun ez da igartzen alderik. Orduan ez eiz zen egoten gauza handirik, baina igandeetan zapata berrienak jantzita. Uda batean bost zapatila pare apurtu zituen pilotan. Pareak 100 pezeta inguru balioko zituela dio. Galtzerdi barik erabiltzen zituzten oinetakoak. Abarketak ere erraz apurtzen ziren, bustiz gero.

10. Zapataria eta denetarik zuen denda Mañarian

- **Erref:** MAN-024/018
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:33:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Mañarian bazegoen zapatari bat. Zapatak konpontzeaz gain, egin ere egiten zituen enkarguz. Abarketak dendan erosten ziren. "Presenen denda"; denetarik egoten zen. Arropak eroatera Durangora.

11. Garai batean hiru taberna Mañarian

- **Erref:** MAN-024/021
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 00:33:55. **Bukatu:** 00:36:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Mañarian hiru taberna zeuden garai batean. "Presenenean" jaten ematen zuten eta ezkontzak ere ospatzen ziren. Bodega famatua izan zen. Goizean mezara joan eta handik irten orduko Bodegara. Orduko kuadrilla giroa: edan, jan, pilotan jokatu, kartetan jokatu...

12. Garai bateko Mañariko jaiak

- **Erref:** MAN-024/023
- **Iraupena:** 0:00:43. **Hasi:** 00:37:24. **Bukatu:** 00:38:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Bera umea zela, txirrindulari lasterketa egon zen Mañariko jaietan. Asto lasterketa ere egiten zen.

13. 1967tik aurrera gazteak Mañariko jaiak antolatzen

- **Erref:** MAN-024/024
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 00:38:07. **Bukatu:** 00:41:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

<p>1967an herriko 40 gazte elkartu, bakoitzak 100 pezeta inguru jarri eta herriko jaiak antolatzen hasi ziren. Benito Lertxundi, Xabier Lete, Lurdes Iriondo... bezalako kantariak ekarri zituzten. "Miss Mañariko" ere aukeratu zen 2-3 urtean. Nor izan zen lehenengo "miss"a. Bizkaia osoan zehar jartzen zituzten festetako kartelak eta jende asko batzen zen. Taberna ere ipintzen zuten.</p>

14. 1927an Mañariko herri-lur guztiak banatu ziren

- **Erref:** MAN-024/034
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 01:03:05. **Bukatu:** 01:06:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurak eta lur pribatuak

Laburpena:

<p>Mañariko herri-lur guztiak banatu egin ziren 1927an. Esaten dutenez, gerra karlista sasoian gobernuak dirua eskatu zien Udalei. Mañariko herri-lurak ez eta herritar batzuek ipini zuten dirua. Udalak ez zuen izango diru hura nola itzuli eta lurak eman omen zitzaizkien herritar horiei, ordain gisa. Jabierren iritziz hori lapurreta izan zen, lurak herritar guztienak zirelako. </p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-14

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com